



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 80. INFORMAZIO BULETINA

2013ko Uztaila-Abuztua



GIPUZKOA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Uztaila-Abuztua

## NABARMENDU BEHARREKOA

### > **RegioStars 2014: baditugu eskualde-politikak kofinantzatutako proiektu onenen sarietako finalistak**

*RegioStars* sarien helburua eskualde-garapeneko jardunbide egokiei aitortpena egitea eta beste eskualdeentzako eredu bihur litezkeen proiektu original eta inspiratzaileak nabarmentzea da. 2014ko deialdiko finalistak zerrenda argitaratuta dago jada.

Epaimahaikideek 19 finalista aukeratu dituzte Europako eskualde-funtsen bidez finantzatutako 80 proiektutatik, eta lau funtsezko irizpide hartu dituzte kontuan aukeraketa egiteko: berrikuntza, inpaktua, iraunkortasuna eta lankidetzatza. 17 estatu kideetako eskualde eta hirietakoak dira finalistak: Belgika, Txekia, Danimarka, Alemania, Irlanda, Grezia, Espainia, Frantzia, Italia, Luxenburgo, Hungaria, Herbehereak, Polonia, Portugal, Errumania, Suedia eta Erresuma Batua.

Urriaren 8an, Europako Eskualdeen eta Hirien Astearen (11. edizioa, Open Days), finalistek epaimahaiaren aurrean defendatuko dituzte proiektuak eta irabazleak aukeratzeko dituzte. 2014ko martxoaren 31n jakinaraziko dute irabazleak zein diren sariak banatzeko ekitaldian.

2013ko *RegioStars* sarietan hainbat proiektu berezi saritu zituzten; Oporto (Portugal), Ingalaterrako ipar-ekialdea (Erresuma Batua), Warmińsko-Mazurskie (Polonia), Berlin (Alemania) eta Lituania. Hainbat kategoriatan eman zituzten sariak: ikerketa eta garapena, baliabideen eraginkortasuna enpresa txiki eta ertainetan, berrikuntza soziala, hiri-garapen iraunkorra eta bideoen erabilera Europar Batasuneko eskualde-politika sustatzeko.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/cooperate/regions\\_for\\_economic\\_change/regiostars\\_en.cfm](http://ec.europa.eu/regional_policy/cooperate/regions_for_economic_change/regiostars_en.cfm)



### > Estatuen eskualde-garapenerako laguntzei buruzko ildo berriak

Europako Batzardeak ildo berriak proposatu ditu 2014-2020 programazio-aldi berrirako eskualde-garapenerako laguntzen inguruan. Ildo berri horien bidez, Batzardeak eskualde-xedeetarako laguntzak barneko merkatuarekin bateragarri izateko baldintzak azaldu ditu eta baldintza horiek betetzen dituzten guneak detektatzeko irizpideak ezarri ditu.

Batzordeak estatuen eskualde-xedeetarako laguntzak kontrolatzearekin lortu nahi duen helburu nagusia eskualde-garapena ahalbidetzea eta, aldi berean, estatu kideen artean bidezko baldintzak daudela ziurtatzea da, batez ere, egoera zailenean dauden Batasuneko tokietan jarduerak erakartzen edo zaintzen saiatzean diru-laguntzak lortzeko lehiarik ez izateko eta merkataritzari eta lehiari lotutako eskualdeko laguntzen eraginak beharrezkoa den minimora mugatzeko.

2014tik aurrera, laguntza horiek eraginkor izateko eta, beraz, Batzardearen balioztapena lortzeko, egoera zailena duten tokietan garapen ekonomikorako inbertsio gehigarriak edo jarduera ekonomikoak sustatzeko eman beharko dira. Eskualde-laguntzen zenbatekoa beharrezkoa den minimora mugatu behar da dagokion eremuan inbertsio gehigarriak edo jarduerak sustatzeko.

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2013:209:0001:0045:ES:PDF>



### > 103. tokian dago Euskadi Europar Batasuneko eskualde-lehiakortasunaren adierazlean

Europako Batzordeak Eskualde Lehiakortasunaren Indizearen (*Regional Competitiveness Index-RCI*) edizio berria argitaratu du, 2013. urteari dagokiona hain zuzen. 2008an hasi ziren Eskualde Lehiakortasunaren Indizea garatzen, Munduko Ekonomia Foroak Lehiakortasun Indize Globala eraikitzeke erabiltzen duen metodologian oinarrituta eta 2010ean argitaratu zen lehen aldiz. Kalkuluetan lurraldeko lehiakortasunarekin lotutako hainbat gai sartzen dira, hala nola berrikuntza eta erakundeen eta azpiegituren kalitatea.

RCI indizeak Europar Batasuneko NUTS2 eskualde guztien indarguneak eta ahulguneak erakusten ditu. Eskualde bakoitzaren egoera zehatza eta garapen maila orokorra kontuan hartzen dituzenez, eskualde bakoitzak indizean puntuazio orokorra hobetzeko zer alderdi hobetu behar dituen azaltzen duen gida ere eskaintzen du.

Sailkapen horren arabera, Holanda, Danimarka eta Finlandia dira herrialde lehiakorrenak eta Errumania, Bulgaria eta Malta rankingaren azken postuetan daude.

Euskal Autonomia Erkidegoa 103.a da 0,175 puntu eskuratuta. Madrilen (57. tokian) atzetik dago eta Europako Rodano-Alpeak (Frantzia), Goi Norland (Suedia), Austria Garaia eta Henao (Belgika) eskualdeen inguruko postuetan dago. 2010ean egin zen aurreko rankingarekin alderatuta (adierazle berriak txertatu dira), Euskal Autonomia Erkidegoak postu bat egin du gora eskualdeen rankingean.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/studies/pdf/6th\\_report/rci\\_2013\\_report\\_final.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/studies/pdf/6th_report/rci_2013_report_final.pdf)



## KOHESIO-POLITIKA

### > Eskualdeen Batzordeak ingurumen-inpaktua ebaluatzeko arauetan malgutasun handiagoa izatea defendatu du

Eskualdeen Batzordeak maiatzeko batzarrean onartutako irizpen baten bidez adierazi du Batzordeak Ingurumen-inpaktua Ebaluatzeko Direktiba berrikusteko planek ez dituztela kontuan hartzen eginko aldaketek eskualdeko eta tokiko erakundeei ekarriko dizkien ekonomia eta administrazio arloko zama gehigarriak.

Eskualdeen Batzordeak adierazi du, halaber, Batzordearen proposamenak ez dituela kide diren estatuek dituzten plangintza-prozedurak behar beste aintzat hartu. Batzordearen arabera, Ingurumen-inpaktua Ebaluatzeko Direktibak prozeduretan malgutasuna izaten jarraitu behar du inpaktuaren ebaluazioak proiektuak abian jartzea ez gehiegi atzeratzea bermatzeko.

Ingurumen-inpaktua Ebaluatzeko Direktiba hainbat aldiz berrikusi dute duela hogeita bost urte indarrean jarri zenetik, eta zenbait proiektu publikok eta pribatuk plangintza fasean ingurumenean izan dezaketen inpaktua aztertzea behartzen du.

*Informazio gehiago:*

[http://toad.cor.europa.eu/ViewDoc.aspx?doc=cdr%5cenv-e-v%5cdossiers%5cenv-e-v-031%5cES%5cCDR591-2013\\_00\\_00\\_TRA\\_AC\\_ES.doc&docid=2926399](http://toad.cor.europa.eu/ViewDoc.aspx?doc=cdr%5cenv-e-v%5cdossiers%5cenv-e-v-031%5cES%5cCDR591-2013_00_00_TRA_AC_ES.doc&docid=2926399)



### > Kohesio-politikak Europako 2007-2013rako aurrekontuaren % 35 hartu du

Europako Batzordeak txosten bat argitaratu du kohesio-politikak enplegua sustatzeko eta Europaren hazkunderako duen zereginari buruz. Batasuneko kohesio-politika 346.000 milioi euroren bidez dago finantzatuta eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF), Europako Gizarte Funtsak (EGIF), eta Kohesio Funtsak jartzen dute dirua. Europar Batasunak 2007-2013 aldian izandako aurrekontu osoaren % 35 hartu du kohesio-politikak. Gainera, kide diren estatuen kofinantzaketarekin batera, kohesio-politikak inbertsio publikoaren oso proportzio handia hartzen du Europan.

2014-2020 programazio-aldi berriari begira, Batzordeak iragarri du indartu egingo duela inbertsio-lehentasunen eta egiturazko erreformen lehentasunen arteko koherentzia eta, horrez gain, hazkundera eta enplegua sustatzeko beharra ere kontuan hartuko dituela 2020rako Europako helburuak betetze aldera.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/studies/pdf/cp\\_employ\\_growth\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/studies/pdf/cp_employ_growth_en.pdf)

### > Europako funtsek kofinantzatutako esku-hartzeetan emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aplikatzeari buruzko jardunaldia antolatu dute


Europako funtsek kofinantzatutako esku-hartzeetan emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren aplikazio praktikoari buruzko jardunaldi bat antolatu dute eta hauek dira antolatzaileak: 2007-2013 Egitura-funtsen eta Kohesio-funtsaren emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken sarea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eta Euskal Autonomia Erkidegoko EGEF eta EGIF bitarteko erakundeak.

Irailaren 30ean izango da jardunaldia Eusko Jaurlaritzaren Bilboko egoitzan eta Europako Funtsek –batez ere EGEF eta EGIF– kofinantzatutako jardueren gauzatze-faseren batean inplikaturako pertsoneri zuzenduta dago eta lan horietarako jakintzak eskainiko zaizkie.

Emakumearen Erakundeko, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko eta hainbat berdintasun-unitatetako hizlariak hartuko dute jardunaldian parte.

*Informazio gehiago:*

<http://www.emakunde.euskadi.net>



### > **“Itzaleko banku-sistema” arautu nahi du Batzordeak**

Europako Batzordeak hainbat ekintza proposatu ditu “itzaleko banku-sistema” esaten zaion horri buruzko kontrolak indartzeko eta zorrozteko. Arautzeko entitate nazionalen norainokotik kanpoko finantza-eragiketak egiten dituzten finantza-entitateek, egiturek eta praktikek osatzen duten kreditu-bitartekaritzarako sistema da, sektorearen arautze eta ikuskapenei ihes egiten diena.

Batzordearen erreforma berri honek diru-merkatuko funts mota jakin batzuek (aipatutako “itzaleko bankua” osatzen duten horiek) likidezia-erreserba handiagoak izatea proposatzen du arriskuak –finantza-krisian izandako funtsen erretiratzeak adibidez– murrizteko bide gisa. Era berean, Batzordeak funts horietarako eguneko eta asteko mailak ezarri nahi ditu beste neurri batzuen artean.

Banku-azpistema horretako aktiboak azken hamarkada honetan 50 bilioi euro gainditzera iritsi direla kalkulatu da; munduko finantza-sistemaren herena da hori. Europan bakarrik, azpistema horrek 23 bilioi euro mugitzen dituela kalkulatu da.

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2013:0614:FIN:ES:PDF>

[http://europa.eu/rapid/press-release\\_IP-13-812\\_es.htm](http://europa.eu/rapid/press-release_IP-13-812_es.htm)



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Uztaila-Abuztua

## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > **HORIZONTE 2020** programari buruzko Europako akordioa

Ordezkarri Iraunkorren Batzardeak uztailaren erdialdean onartu zuen Kontseiluko Presidentetzak eta Europako Parlamentuak HORIZONTE 2020 programari buruz lortutako akordioa. Akordio horrek erraztu egingo du programaren lege multzoa formalki ezartzea, baina Europar Batasuneko kide diren estatuetako Ordezkarri Iraunkorren Batzardeak behin betiko onartzea falta da.

HORIZONTE 2020 programaren helburua Europar Batasunean ikerketa eta berrikuntza-jarduerak sustatzea da, hazkundera eta enplegurako aukerak areagotze aldera. 7.000 milioi euro inguruko aurrekontua du.

Hiru ardatz ditu programak: 1) bikaintasun zientifikoa. Hor sartzen dira Europako Ikerketa Zentrorako finantzaketa, funtsezko azpiegiturak eta suspertzen ari diren etorkizuneko teknologiak; 2) industria-lidergoa. Enpresa txikiei eta ertainei eta zenbait industria-teknologiaren (nanoteknologiak, bioteknologiak, IKTak) garapenari laguntza ematea du helburu; eta 3) erronka sozialak. Horien bidez, ikerketa herritarrak eta enpresak gehien kezkatzen dituzten eremuetara eta/edo gaietara bideratzen dela bermatu nahi da; hala nola osasun, klima, elikadura, segurtasun, garraio eta energia arloetara.

*Informazio gehiago:*

[http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms\\_data/docs/pressdata/en/intm/138118.pdf](http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_data/docs/pressdata/en/intm/138118.pdf)





### > Europako gazteria arloko politiken inpaktua ahalik eta gehien indartzeko Kontseiluaren gomendio berriak

Europa 2020 Estrategiaren helburu orokorrak eta kide diren estatuek gazteen artean enplegua areagotzeko, eskola-uzteak murrizteko eta hirugarren hezkuntzan parte-hartzea handitzeko dituzten helburuak oso garrantzitsuak dira gazteentzat oro har eta baztertuak izateko arrisku handiena duten gazteentzako. Europako gazteria arloko politikak hainbat neurri biltzen ditu: gazteek hezkuntzako, garapeneko, kulturako eta elkartzeko jardueretan parte hartzea sustatzen duten neurriak, esperientzia lortzeko aukerak eta gazteek bizitzeko, ikaskuntzarako eta lanerako dituzten gaitasunak hobetzeko aukera praktikoak sustatzen dituztenak.

Europako Kontseiluaren gomendioak, batez ere, gazteek haiei eragiten dieten politiken plangintzan duten zeregina hobetzeko beharrari lotuta daude; batez ere, gazteek dituzten hezkuntza, prestakuntza eta enplegu-aukerei, sarbideari eta bilakaerari lotuta, gizartean hobeto txerta daitezten. Funtsezkoa da gazteek politikak egiteko lanetan parte hartzea.

Kontseiluak beharrezkotzat jo du, halaber, sortzekotan diren Europako Egitura eta Inbertsio Funtsa gazteetan eta haien gaitasunetan inbertsioak egiteko benetako tresna bihurtzea, gazteak mundu profesionalean eta lan-merkatuan sartzeko duten gaitasuna hobetzeko.

*Informazio gehiago*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2013:224:0002:0006:ES:PDF>



### > **“Altxarazi jendea eserlekutik”, Europar jarduera fisikoa sustatzeko ekimen berria**

“Altxarazi jendea eserlekutik” (*Getting people out of their chairs*) ekimena jarri du abian Europako Batzordeak. Jarduera fisikoa sustatu nahi du ekimen horren bidez osasunerako ohitura ona den aldetik.

Sektore politiko guztietan herritarrei jarduera fisikoa eginaraziko dieten neurriak hartzeko proposatu die Batzordeak kide diren estatuei. Kide diren estatuei emandako urratsei jarraipena egiten eta kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko egiten dituzten ahaleginei lotutako joerak zehazten laguntzea da proposamenaren funtsezko elementuetako bat.

Europa 2020 Estrategiaren baitako ekimen berri honek kide diren hainbat estatu egiten ari diren lana du oinarri, baina ahalegin hori osasunerako ona den jarduera fisikoa hainbat sektoretan sustatzeko estrategia naturalak eta horiei lotutako ekintza-planak prestatuz formalizatzen gonbidatu nahi ditu. EBk jarduera fisikoaren inguruan dituen ildoak estrategia eta ekintza-plan horietan islatzea eta egiten den jarduera fisikoaren eta politiken aplikazioaren jarraipena egitea da helburua.

EBk neurriak aplikatzeko emango duen laguntza Erasmus+ programatik etortzea da proposamena. Programa hori 2014an abiaraztea dago aurreikusita.

*Informazio gehiago*

[http://ec.europa.eu/sport/news/201308-comm-initiative-hepa\\_en.htm](http://ec.europa.eu/sport/news/201308-comm-initiative-hepa_en.htm)



## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

### > 2013ko udaberriko Eurobarometroa (Europako Batzordea)

Eurobarometroaren azken inkestaren emaitzen arabera, Europar Batasuneko hamar herritarretatik sei europar sentitzen dira eta dituzten eskubideei buruzko informazio gehiago izan nahi lukete. Hala ere, erdiek baino gutxiagok (% 46) dakite eskubide horiek zein diren.

Badirudi krisiak enpleguan izan duen eraginari buruzko ezkortasuna atzera egiten ari dela; izan ere, Europar Batasunaren etorkizunari buruz baikor dauden herritarrak ezkor daudenak baino gehiago dira 28 estatu kideetatik 19tan.

*Informazio gehiago*

[http://ec.europa.eu/public\\_opinion/archives/eb/eb79/eb79\\_en.htm](http://ec.europa.eu/public_opinion/archives/eb/eb79/eb79_en.htm)

### > Euskadi EB27an. Adierazle demografikoak (Eustat)

Adierazle demografiko garrantzitsuenetako bat populazioaren bizi-itxaropenari buruzkoa da. Eustatek eta Eurostatek emandako datuen arabera, euskal emakumeen bizi itxaropena, 86,1 urtekoa, EB-27ko altuena da. Gizonena, berriz, 79,3 urtekoa da, emakumeena baino ia 7 urte laburragoa.

Alde horretatik, aipagarria da adierazle horrek hamarkada pasatxo honetan Euskadin izandako igoera esanguratsua; izan ere, euskal populazioak 2000. urtean zuen bizi-itxaropena 75,8 urtekoa zen gizonentzat eta 83,8koa emakumeentzat, eta 2011n, berriz, 79,3koa eta 86,1 urtekoa, hurrenez hurren.

*Informazio gehiago*

[http://www.eustat.es/elementos/ele0010800/ti\\_La\\_esperanza\\_de\\_vida\\_de\\_las\\_mujeres\\_vascas\\_861\\_\\_a%F1os\\_es\\_la\\_mas\\_alta\\_de\\_la\\_UE-27/tema\\_193/tipo\\_1/not0010869\\_c.html#axzz2fVkcGJx](http://www.eustat.es/elementos/ele0010800/ti_La_esperanza_de_vida_de_las_mujeres_vascas_861__a%F1os_es_la_mas_alta_de_la_UE-27/tema_193/tipo_1/not0010869_c.html#axzz2fVkcGJx)



### > Etorkizunean eurogunea hedatzeko prestaketa praktikoei buruzko txostena (Europako Batzordea)

Letonian euroa sartzeko prestaketa praktikoen egoera ebaluatzeko eta eurora igarotzeko trantsizioari buruzko komunikazio-kanpaina prestatzen eginiko aurrerapena baloratzeko txostena.

*Informazio gehiago*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2013:0540:FIN:ES:PDF>

### > Zazpigarren Esparru Programari jarraipena egiteko txostena (Europako Batzordea)

Zazpigarren Esparru Programa ikerketari buruzko erkidegoko ekimen guztiak biltzen dituen programa da eta 50.000 milioi euroko aurrekontua du 2007-2012rako.

Agiriaren egitura (seigarren edizioa) aurreko txostenetako antzekoa den arren, bertsio honek hainbat berrikuntza ditu; horien artean da 2012ko 7. Esparru Programaren partaidetza-ereduen azterketa sakona.

*Informazio gehiago*

[http://ec.europa.eu/research/evaluations/pdf/archive/fp7\\_monitoring\\_reports/6th\\_fp7\\_monitoring\\_report.pdf#view=fit&pagemode=none](http://ec.europa.eu/research/evaluations/pdf/archive/fp7_monitoring_reports/6th_fp7_monitoring_report.pdf#view=fit&pagemode=none)